


HOBEKUNTZA PLANA GAUZATZEKO EKINTZAK



Berritzegune Nagusia

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Berritzeguneetako **aholkularientzat** prestatu da agiri hau, eta bere helburua da haiei jardun-gida bat eskaintzea, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egin behar duten lana prestatzeko; hau da, Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzei erreparatuta egin behar diren hobekuntza-planak egiten laguntzeko ikastetxeei.

Ebaluazio hori 2008-2009 ikasturtean egin da lehen aldiz, eta hiru gaitasun hauek aztertu ditu: zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna, matematika-gaitasuna eta hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Ebaluatutako gaitasunak eta horien dimentsioak dira planaren abiapuntua eta hura antolatzeko bizkarrezurra. Ebaluazio Diagnostikoak beste gaitasun batzuk aztertzen dituen neurrian, osatu egin behar dira agiriak ematen dituen jarraibideak, eta, ondorioz, proposamen berriak jaso behar ditu. Agiri honek izaera malgua duenez, aukera ematen du bertan jasotzeko aholkulariek edo irakasle-taldeek interesekoak iritzi ditzaketan beste jarraibide batzuk.

Nabarmendu behar da hobekuntza-planak egiteko jarraibide hauen atzean metodologia-planteamendu argi bat dagoela. Jarraibide horiek bere izatea zor diote "Ikaskuntza aktiboa" deritzon tradizio didaktiko sendoari. Konfuzioren ahotan jarri izan diren hitz hauek laburbiltzen dute ikuspegi didaktiko hori: "Zerbait esaten badidazu, ahantzi egingo dut, zerbait erakusten badidazu, gogoan izango dut, baina zerbaiten partaide egiten banauzu, ikasi egingo dut". Horrenbestez, jarraibideek bat egiten dute curriculum-esparru berriarekin; izan ere, oinarritzko gaitasunak garatzeko premiaren inguruan antolatzen da curriculum-arena, eta ardatz hori garatzeko, ikasleari begirako jardun didaktikoa egin behar da ikastetxeetan. Esparru horretan, beraz, eskolan ikasitako gauzek lotura zuzena izan behar dute ikasleen beharrezekin eta beren gizarte-ingurunearekin, eta, horrez gain, ikaskuntzaren azken xedea izan behar du, eskola-arrakasta lortzeaz harago, autonomiaz ikasteko gaitasunak eskuratzea, eta bizitzari bere osotasun eta konplexutasun guztian aurre egiteko behar den prestakuntza eskuratzea.

Agiria hiru ataletan antolatuta dago, eta, ondorioz, atal bat du ebaluatutako gaitasun bakoitzeko. Gaitasun bakoitzaren barruan, ikastetxeko jardun-eremu bakoitzerako proposamenak egiten dira: curriculum-aren eta metodologiaren garapenerako eremurako, antolamendu eta funtzionamenduko eremurako, eskola-komunitatearen eremurako eta lanbide-garapenerako eremurako.



Dagokion gaitasunaren dimentsioei erreparatuta antolatuta daude curriculumaren eta metodologiaren garapeneko eremuan proposatutako hobekuntza-ekintzak. Gainerako eremuetarako proposatzen diren ekintzak zerranda bakarrean jasota daude, antzekoak baitira dimentsio guztietan.

Eremu bakoitzean, hobekuntza-ekintza bat edo bi adierazi dira, eta, horiek osatzeko, egin daitezkeen jarduera zehatzen zerranda bat eransten da. Ekintzek eta jarduerak ez dute zerranda itxi eta xeherik osatzen; aitzitik, proposamen orokorrak dira, eta irakasle-talde bakoitzak haiek zehaztu beharko ditu hobekuntza-plana egitean. Lan hori egiteko, zer gaitasun edo dimentsio bultzatu nahi diren eta lan hori zer etapa, ziklo edo ikasgelatan egin nahi den erabaki behar dute. Alderdi horiek aztertzean, ebaluazio diagnostikoaren emaitzak azaltzeaz gain, ikastetxearen testuinguru soziokulturala eta haren ibilbidea adierazi behar dira bereziki, ikastetxe baten eguneroko jardunean eragiten duten faktore anitzak aintzat hartzeko.

Gaitasunak garatzeko ekintzak eta jarduerak arlo eta irakasgai guztietan landu behar direla azpimarratu behar da, arlo eta irakasgai guztiek laguntzen baitute, gehiago edo gutxiago, garapen hori indartzen. Arlo eta irakasgai bakoitzak, beren jardun-eremu zehaztetik abiatuta, gaitasun guztien garapena hobetzeko jarduerak jaso behar ditu.

Arlo edo irakasgai bakoitza irakasten duten irakasleek, irakasle-talde osoak adostutako erabaki orokorrei jarraituz, beren lanean egingo dituzten ekintzak hautatu, zehaztu eta lehenetsi behar dituzte, beren jardun didaktikoa aldatzeko, talde-lana indartzeko eta ikasleen ikaskuntza-jarduerak aberasteko.

Beste ikuspegi bati erreparatuta, nabarmendu behar da zer-nolako garrantzi handia duten ikastetxe osoari eragiten dioten zenbait ekintzak, gaitasun zehatzak garatzeko ekintzak ez badira ere, gaitasun guztietan ikusten baita haien eragina; beraz, hobekuntza-plan guztietan adierazi behar dira. Ekintza horietako gehienak irakasleek ikasleen ikaskuntza bizia edo aktiboa bultzatzeko aintzat hartu behar dituzten metodologia-estrategiari dagozkio, horiek baliatu behar baitituzte gaitasunak ikastetxeko jardun-eremu guztietan garatu eta indartu daitezen.

Horien artean, hauek aipa daitezke:

- Erabakiak hartzea gaitasunekin lotutako prestakuntzari buruz eta curriculumean gaitasunak jasotzea dakartzan ondorioei buruz.
- Talde elkarreragileak baliatzeko erabakiak hartzea, irakaskuntzako eta ikaskuntzako jardueren ohiko antolamendua
- Ikastetxearen ingurunean gizarte-presentzia txikiena duen hizkuntza ofizialaren erabilera normalizatzeko eskolak duen egiteko funtsezkoari buruzko erabakiak hartzea.
- Irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduera guztietan estrategia parte-hartzaileak erabiltzeko erabakiak bultzatzea, eta, horien bidez, ikasle guztiengan piztea zalantzak planteatzeko eta haiek argitzeko grina eta ikasitakoaren erabilgarritasuna baliatzea.

- Helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak eztabaidatu eta negoziatzea, irakaskuntza-taldeak estrategia adostuak erabaki ditzan, eta, estrategia horien bidez, ikasi behar diren gauzekiko motibazioa piztea ikasleengan.
- Ikaskuntza autonomia bultzatzeko ekintzak koordinatzea, eta, ekintza horien harian, irakasleen eta ikasleen rol tradizionalak aldatzea, eta ez erabiltzea gaitasunak garatzeko eraginkortasun txikia duten transmisio-metodoak.
- Prestakuntzarako ebaluazioa, autoebaluazioa eta koebaluazioa bultzatzea, eta, ekimen horien harian, autoerregulazio-egoerak sortzea, ebaluazio-irizpideak jakinaraztea, behaketarako txantiloak finkatzea, bitarteko ebaluazio-jardueren plangintzak egitea, ikaskuntzak birbideratzeko...
- Ikastetxeko eremu eta denbora-sekuentziazioen antolamendu tradizionala aldatzeko akordioak erdiestea, eta, horien bidez, antolamendu malguak erabiltzea, arlo eta ikasgaien arteko lotura estutu dadin.
- Erabaki koordinatuak hartzea arlo eta irakasgai guztietan Informazioko eta Komunikazioko Teknologien erabilera eraginkorra bultzatzeko.

Ezinbestekoa da faktore giltzarri horiek aztertu eta jasotzea hobekuntza-planak egitean.

Amaitzeko, berriro nabarmendu behar da agiri hau ez dela agiri itxia, eta, ondorioz, irekita dagoela hezkuntzaren bikaintasuna eta ikasle guztien eskola-arrakasta lortzeko hobekuntza-proposamen guztiak bereganatzeko. Hobekuntza-planak egiteko prozesuaren lehen urratsa da, eta lanbide-erronka berri baten aurrean hartu behar diren erabakiak hartzeko orientazioa eman nahi du. Ikastetxe bakoitzak osatu egin behar du agiria, eta beharrezkoa izango da hura erabiltzen duten eragile guztien (zuzendari, irakasle eta aholkularien) iritzia eta ekarpenak biltzea, hura hobetu eta aberasteko.

■ **Curriculum eta metodologia garatzeko eremua**

■ Dimentsioa: **Ahozkoaren ulermena**

■ **Ekintza:**

- **Arlo guztietako programazioetan proposatzea arlo horietako bakoitzaren ahozko testu espezifikoak ulertu beharra, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.**

■ **Jarduerak:**

- Entzute-jarduerak proposatzea eta mota, erabilera-esparru eta euskarri askotako ahozko testuak erabiltzea, bakoitzean komeni den helburua lortzeko.
- Ikasgelan erabiltzen diren ahozko informazio-iturriak dibertsifikatzea, trebetasun komunikatiboen garapenari laguntzeko.
- Jarduera-protokolo bat erabiltzea, irakasleen diskurtso akademikoa egituratzeko, eta, horren bidez, ikasleen ahozko ulermena hobetzeko.
- Ahozko ulermenarekin lotutako adierazleak ere aintzat hartzea irakasgai guztiak ebaluatzeko.
- Ahozko ulermena garatzeko jarduerak proposatzea, hizkuntzen erabilera integratua eginez.
- Jarrera baikorrak sustatzea ikasleek uler dezaten beharrezkoa dela hizkuntza eta hizkuntza-erregistro ugariako ahozko testuak ulertzea; batik bat, gizartean presentzia gutxien duen hizkuntzan sortutakoak.

■ Dimentsioa: **Idatziaren ulermena**

■ **Ekintza:**

- **Arlo guztietako programazioetan bultzatzea arlo horietako bakoitzaren testu espezifikoak ulertu beharra, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.**

■ **Jarduerak:**

- Baliatzea mota, erabilera-esparru eta euskarri askotako testu idatziak, bakoitzean komeni irakurketa-helburua lortzeko.
- Ikasgelan erabiltzen diren informazio-iturriak dibertsifikatzea, irakurketa kritikoak gara daitezen..
- Irakurtzen dena ulertzen dela egiaztatzeko jarduera-protokolo bat erabiltzea.
- Ulermenarekin lotutako adierazleak baliatzea.
- Ikastetxeko irakurketa-planean adostu diren erabakiak betetzea.
- Irakurketa dialogikoko jarduerak egitea.
- Idatzizko ulermena lantzeko jarduerak proposatzea, hizkuntzen erabilera integratua eginez.
- Jarrera baikorrak sustatzea ikasleek uler dezaten beharrezkoa dela hizkuntza

eta hizkuntza-erregistro ugariko testu idatziak ulertzea; batik bat, gizartean presentzia gutxien duen hizkuntzan sortutakoak.

- Dimentsioa: **Mintzamina**

■ **Ekintza:**

- **Mintzate-jarduerak proposatzea arlo eta irakasgai guztien programazioan, ikasitakoa azal dezaten ikasleek.**

■ **Jarduerak:**

- Mota, erabilera-esparru, euskarri eta helburu anitzeko testuak mintzamenaren bidez adierazteko ariketak proposatzea.
- Mintzamenari buruzko jarduera-protokolo bat erabiltzea. Protokoloak prozesuko fase guztiak jasoko ditu.
- Mintzamenarekin lotutako adierazleak aintzat hartzea.
- Mintzamen-ariketak baliatzea material didaktikoetako proposamenak osatzeko.
- Mintzamina lantzeko jarduerak proposatzea, hizkuntzen erabilera integratua eginez.
- Jarrera baikorrak sustatzea, hizkuntza eta hizkuntza-erregistro ugariko ahozko testuak sortzeko interesa piz dadin ikasleengan; eta testu horiek, batik bat, gizartean presentzia gutxien duen hizkuntzan sor daitezen sustatzea.

- Dimentsioa: **Idazmina**

■ **Ekintza:**

- **Arlo eta irakasgai guztietako programazioetan jasotzea arlo eta irakasgai horietako testu-mota espezifikoak idatzi beharra, ikasteko bitartekoa izan dadin.**

■ **Jarduerak:**

- Mota, erabilera-esparru, euskarri eta helburu anitzeko testu propio edo berezkoak idazteko jarduerak proposatzea.
- Idatzizko lanei buruzko jarduera-protokolo bat erabiltzea. Protokoloak idazte-prozesuko fase guztiak jasoko ditu.
- Idazmenarekin lotutako adierazleak aintzat hartzea.
- Idatzizko adierazpen-ariketak baliatzea material didaktikoetako proposamenak osatzeko.
- Idazmina lantzeko jarduerak proposatzea, hizkuntzen erabilera integratua eginez.
- Jarrera baikorrak sustatzea, hizkuntza eta hizkuntza-erregistro ugariko testu idatziak sortzeko interesa piz dadin ikasleengan; eta testu horiek, batik bat, gizartean presentzia gutxien duen hizkuntzan sor daitezen sustatzea.

- Dimentsioa: **Elkarrekintza**

- **Ekintza:**

- Arlo eta irakasgai guztietan sustatzea elkarrekintza, berdinen arteko lana sustatzeko, jakintza jardun konpartituen bidez eraikitzeke jarduerak indartzeko, autoerregulazioa bultzatzeko, eta hizkuntzen ikaskuntza eta erabilera sustatzeko metodoa den aldetik.

- **Jarduerak:**

- Erabiltzea ikasgelan elkarrekintza sustatuko duten jarduerak; esaterako, lankidetzeta-proiektuak eta talde elkarreragileak.
- Guztietan proposatzea elkarrekintzaren eta lankidetzaren bidez sortu beharreko testuak egitea; esaterako, eztabaidak eta elkarrizketak.
- Elkarrekintzarekin lotutako adierazleak aintzat hartzea.
- Jarduera elkarreragileak proposatzea, hizkuntzen erabilera integratua bultzatuz.
- Jarrera baikorrak sustatzea, komunikazio hartu-emanetan parte hartzeko interesa piz dadin ikasleengan; eta hartu-eman horiek, batik bat, gizartean presentzia gutxien duen hizkuntzan egin daitezen sustatzea.

■ Antolamenduaren eta funtzionamenduaren eremua

■ *Ekintza:*

- **Eskolako liburutegiaren eta mediatekaren erabilera sustatzea, irakurtzeko eta ikasteko guneak izan daitezen.**

■ *Jarduerak:*

- Ikastetxeko funts digitalak, ikus-entzunezkoak eta bibliografikoak berrikustea eta katalogatzea, eta funts horiek askotariko materialekin eguneratzea, gaien, hizkuntzen, hizkuntza-erregistroen eta beste ezaugarri batzuen arabera.
- Ikasleen ezaugarri anitzak aintzat hartzea (interesak, gaitasunak, hizkuntzak, etab.), liburutegirako eta mediatekarako funtsak aukeratzeko.
- Hizkuntza-aniztasuna bistaraztea liburutegian eta mediatekan.
- Jardunaldi osoko liburuzainaren figura sortzea ikastetxearen liburutegiaren erabilera bultzatzea dinamizatzailea izan behar duen liburutegiaren arduradunaren bidez.
- Ikastetxeko irakurketa-plana egitea.
- Ikastetxearen irakurketa-planean adostutakoa abiaraztea.
- Orientazio-gida egokiak eta komentatuak aurkitu eta aukeratzeko, ikasleek zer liburu hautatu eta irakurri jakiteko orientazioa izan dezaten.

■ *Ekintza:*

- **Proiektu orokorrak planifikatzea arlo eta irakasgai anitzen partaidetzarekin, horien bidez hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna eta beste gaitasun batzuk gara ditzaten ikasleek.**

■ *Jarduerak:*

- Proiektu orokorrak planifikatzea arlo eta irakasgai anitzen partaidetzarekin, ikasleek ahoz eta idatziz adieraz dezaten ikasi dutena.
- Blogen, wikien, eskola-aldizkariaren eta beste bitarteko batzuen erabilera sustatzea, idazte-jardunen erabilgarritasuna bistarazteko.
- Erabiltzen diren material didaktikoak berrikustea, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lantzeko ariketak dauden eta ariketa horiek zer motatakoak diren (ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena lantzekoak) egiaztatzeko.
- Beharrezkoa bada, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeko bide ematen duten ariketak prestatzea, erabiltzen diren material didaktikoetako proposamenak osatzeko.
- Ikastetxeko irakas-hizkuntzak aintzat hartuta, proiektu integratuak planifikatzea, hizkuntza horiek ikasteko eta begi onez ikusteko bultzada bat izan daitezen.
- Mota eta zailtasun ugariako ariketak jasotzea proiektu orokorretan, ikasle guztiek egin ditzaten, haien gaitasunak, interesak, hizkuntzak eta gainerako ezaugarriak edozein izanda ere.

- Ebaluazioan hizkuntza-komunikazioaren dimentsioetako adierazleak erabiliko direla erabakitzea

■ **Ekintza:**

- **Askotariko ariketak egiteko eta baliabide didaktiko anitzak erabiltzeko plangintzak egitea.**

■ **Jarduerak:**

- Leku interesgarrietara (museoak, planetarioak, literatura-ibilbideak, etab.) joateko irteerak antolatzea arlo eta irakasgai guztien artean, eta haietara joango diren ikasle guztien parte hartzea bermatzea.
- Askotariko ariketak egiteko plangintzak lantzea: lan praktikoak, webquest, kasuen azterketa, simulazio-jokoak, komunikazio-proiektuak, etab.
- Arlo eta irakasgai guztietan batera askotariko bitarteko didaktikoak erabiliko direla planifikatzea: filmak, prentsa-artikuluak, telebista-programak, etab.
- Jardueretan hizkuntzak modu integratuan erabiltzeko modua planifikatzea eta hizkuntzen aniztasuna kultura-aberastasun eta gizarte-ondasun gisa balioestea.
- Ebaluazio-irizpideak berrikustea, adierazle adostuak txertatzeko ebaluazio- eta zuzenketa-jardueretan.
- Batera berrikustea eta planifikatzea askotariko ebaluazio-tresnen erabilera.
- Erabakiak hartzea ikastetxeko hizkuntzak haren eremu guztietan erabiltzeko eta hezkuntza eleanitza eta kulturانيتza sustatzeko.
- Ikasgelan liburutegiak jartzeko prozesuak bultzatzea.

■ Eskola-komunitatearen eremua

■ *Ekintza:*

- **Familien inplikazioa handitzea, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lantzeko prozesuan.**

■ *Jarduerak:*

- Dekalogo bat prestatzea familiek arlo horretan beren seme-alabekin egin beharreko lana errazteko; hau da, oro har, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna eta, berariaz, irakurmena lantzeko beren seme-alabekin.
- Irakurmenaren garrantziari buruzko orientazioak ematea gurasoekin egiten diren tutoretza-bileretan.
- Hizkuntza anitzetan hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna izateak duen garrantzia adierazten gurasoekin egiten diren tutoretza-bileretan, eta, horrez gain, familiak gaitasun hori eskuratzeko prozesuan duen egitekoa nabarmentzea.
- Sentsibilizazio-lana egitea familiekin, ingurunean presentzia txikiena duen hizkuntza erabiltzeko jardueretan parte hartzearen garrantzia balioetsi dezaten.
- Familiak inplikatzeko mediateka eta liburutegia kudeatzeko lanean.
- Familiei orientazioa ematea beren seme-alabentzat egokiak diren askotariko irakurgaiak aukera ditzaten (ikastekoak, aisiarakoak, eta abarrekoak).
- Ikastetxeko web-orria erabiltzea ikasleen eta familien parte hartzea bultzatzeko, ahozko eta idatzizko testuen igorle eta hartzaile diren aldetik.
- Ikastetxeko web-orria erabiltzea berariazko txoko bat sortu eta bertan arlo eta irakasgai guztietan sortutako ahozko eta idatzizko testuak jartzeko. Ikasgelan egindako lana lagundu, indartu edo osatzeko baliatuko dira testuok.
- Agenden erabilera bultzatzea, eta familiak inplikatzeko haiek gainbegiratu eta ikasleari proposatu zaizkion lanak ezagutu ditzaten.

■ Lanbide-garapeneko eremua

■ *Ekintza:*

- **Batera hausnartzea, arlo eta irakasgai guztietan, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna dimentsio guztietan garatzeko prozesuei buruz; betiere, ikasgelako hezkuntza-jarduna hobetzeko.**

■ *Jarduerak:*

- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunari buruzko informazioa eta gaitasun horrek arlo eta irakasgai guztietan duen garapen-bideari buruzkoa jasotzea.
- Hizkuntzen erabilera integratuari buruzko informazioa eta erabilera horrek eremu didaktikoan dituen inplikazioei buruzko oinarrizko informazioa jasotzea.
- Irakaskuntza eleanitza mesedetzen duten faktoreei buruzko oinarrizko informazioa eta hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrerak duten garrantziari buruzkoa informazioa jasotzea.
- Irakasleen hizkuntza- eta komunikazio-gaitasuna hobetzeko jarduerak proposatzea eta egitea.
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren garapenari buruzko oinarrizko erreferentziak biltzea, horiei buruzko lanbide-irakurketa egiteko.
- Irakasleen diskurtso akademikoari buruzko gogoeta egitea eta horren inguruko jarduera-protokolo bat adostea, ikasleen ahozko ulermena eta elkarrekintzak indartzeko.
- Mintzamenak eta idazmenak duten garrantziaz hausnartzea, ikaskuntzarako oinarrizko jarduerak diren aldetik.
- Pertsona berdinen eta diferenteen arteko elkarrekintzak duen garrantziaz hausnartzea, ikaskuntzarako oinarrizko jardueretako bat diren aldetik.
- Jarduera-protokolo bat prestatzea, hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren lanketa indartzeko.
- Bultzada bat ematea ikastetxeko hizkuntza-proiektuari, hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren garapenari dagozkion erabakiak biltzeko agiria den aldetik.

■ *Ekintza:*

- **Proiektu orokorrak bultzatzea beste zenbait erakunderen partaidetzarekin, horien bidez hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna eta beste gaitasun batzuk gara ditzaten ikasleek.**

■ *Jarduerak:*

- Proiektu orokorren plangintza egitea beste zenbait erakunderekin lankidetzan arituz, ikasleek jendaurrean erakuts ditzaten irakas-hizkuntzetan sortu dituzten ahozko testuak eta idazlanak.
- Arlo eta irakasgaietan lan egitea eskolako irratia, egunkaria eta antzeko proiektuak sortu eta aurrera eramateko, ikastetxetik kanpo oihartzuna izan dezaten eta ikasleek egindako lanen plataforma izan daitezen. Hala, tresna

horiek baliatuko dira ikasle guztien inklusioa bultzatzeko.

- Blogak, wikiak eta antzeko elementuen erabilera bultzatzea ikastetxean eta ikasgeletan, idazlanak eta ahozko adierazpeneko lanak ezagutarazteko hezkuntza-komunitateari.

■ **Curriculuma eta metodologia garatzeko eremua**

■ Dimentsioa: **Kantitatea**

■ **Ekintza:**

- **Arlo eta irakasgai guztietan bultzatzea, modu adierazgarrian, zenbakizko alderdiekin, neurriekin eta aljebrearekin egindako lana.**

■ **Jarduerak:**

- Zenbakiekin, neurriekin eta aljebrearekin lotutako jarduerak proposatzea eta modu integratuan lantzea eduki horiek.
- Modu sistematikoan bultzatzea buruzko kalkulua ikasgelan.
- Neurriak lantzeko jarduera egitea, ikuspegi kultural batetik eta ikasleei gertukoak zaizkien testuinguruan.
- Kantitateei buruzko informazio-iturri askotarikoak erabiltzea, zenbakizko gaitasuna lantzeko.
- Zenbakizko alderdiak dituzten matematika-problema ebazteko denboren plangintza egitea.
- Zenbakiekin lan egitean, informazio eta komunikazioko teknologia-tresnak modu sistematikoan erabiltzea.
- Zenbakizko gaitasunari buruzko irizpideak eta ebaluazio-alderdiak bateratzeko saioak egitea.

■ Dimentsioa: **Espazioak eta formak**

■ **Ekintza:**

- **Alderdi geometrikoak indartzea, eta, ildo horretatik, espazioaren antolamenduko eta ikusmeneko arazoak aztertzea eta ebaztea arlo eta irakasgai guztietan.**

■ **Jarduerak:**

- Geometria-kontzeptuak eta espazioa adierazteko sistemak erabiltzea espazio fisikoari buruzko informazioak interpretatu, ulertu, landu eta komunikatzeko.
- Arlo eta irakasgai guztietan lantzea, modu integratuan, geometriari buruzko edukiak.
- Jarduerak proposatzea, geometria-jakintza integrazteko ikaskuntza-jardueretan.
- Ikusmen geometrikoko jarduerak proposatzea, ikuspegi kultural eta zientifiko batetik.
- Matematika-problema geometrikoak ebazteko denboren plangintza egitea.
- Geometria-antolamenduko eta -ikusmeneko irizpideak eta ebaluazio-alderdiak bateratzeko saioak egitea.

- Dimentsioa: **Aldaketak, harremanak eta ziurgabetasuna**

- **Ekintza:**

- Informazioa antolatu eta erabiltzeko alderdiak modu adierazgarrian bultzatzea arlo eta irakasgai guztietan.

- **Jarduerak:**

- Datuen alderdi funtzionalak eta antolamenduzkoak lantzeko jarduerak proposatzea eta eduki horiek modu integratuan lantzea.
- Informazio eta komunikazioko teknologia-tresnak erabiltzea informazioa erabiltzeko moduak hobetzeko.
- Ikuspegi kritiko batetik lantzea, bai informazioaren alderdi kuantitatiboak, bai alderdi kualitatiboak.
- Simulazioak sustatzea (dadoak, txanponak, era askotako gailuak eta bestelako objektuak erabiliz...), ikasleek probabilitate-eredu bat eskura dezaten, eta, horren bidez, zoriarekin lotutako egoerak erabaki ditzaten.
- Informazioaren erabilerarekin lotutako problemak ebazteko denboren plangintza egitea.
- Datuak irakurri eta antolatzeko irizpideak eta ebaluazio-alderdiak bateratzeko saioak egitea.

- Dimentsioa: **Problemak planteatzea eta ebaztea**

- **Ekintza:**

- Arlo eta irakasgai guztietan aplikatzea problemak ebazteko.

- **Jarduerak:**

- Ikasgelako jardun-saio gehienetan ebaztea problemak.
- Pentsatzeko jokoak eta jarduerak proposatzea.
- Problemak ebazteko denboren plangintza egitea.
- Problemak ebazteko jardun-eremua indartzea ikasleengan, haiei askotariko matematika-estrategiak erakutsiz eta horiek erabiliz.
- Problemak ebazteko irizpideak eta ebaluazio-alderdiak bateratzeko saioak egitea.

■ Antolamenduaren eta funtzionamenduaren eremua

■ *Ekintza:*

- **Jarduera orokorrak proposatzea arlo eta irakasgai guztietan, matematika-gaitasunaren dimentsio guztien integrazioa indartzeko.**

■ *Jarduerak:*

- Ikasleei eta irakasleei animatzea ekintza sortzaileetan parte har dezaten, matematika-gaitasunaren dimentsio guztiak indartzeko alderdiak nabarmenduz:
- Matematika-problemen astean parte hartzea.
- Problema ebazteko jarduerak sustatzea, hamabostaldiko problema jarri ikastetxeko iragarki-taulan.
- Problema interesgarriak jasoko dituen argitalpen txiki bat plazaratzea, arlo eta irakasgai gehienentzat partaidetzarekin.
- Argazkilaritza-lehiaketak proposatzea ikusmen geometrikoa bultzatzeko.
- Irakasle guztiak inplikatzeko metodologia aktibo bat aplikatu dezaten, horretarako aukera dagoen heinean.
- Irakurtzeko eta ikasteko erabiltzea eskolako liburutegia.
- Mota eta zailtasun ugari ariketak jasotzea proiektu orokorretan, ikasle guztiek egin ditzaten, haien gaitasunak, interesak, hizkuntzak eta gainerako ezaugarriak edozein izanda ere.

■ *Ekintza:*

- **Askotariko ariketak egiteko eta baliabide didaktiko anitzak erabiltzeko plangintzak egitea.**

■ *Jarduerak:*

- Ikastetxetik kanpoko jarduerak programatzea arlo eta irakasgai guztien artean, interesgarriak diren guneetara joateko.
- Aurrez ezarritako protokolo bati jarraituz antolatzea irteerak, eta irteera horiek proposatutako helburuak betetzeko xedeari jarraitzea.
- Planifikatzea nola egingo diren landutako gai bakoitzari buruzko jarduerak: lan praktikoak eginez, webquest bidea erabiliz, kasuak aztertuz, simulazio jokoak eginez...
- Askotariko bitarteko didaktikoak erabiltzeko plangintza egitea: filmak, prentsa-artikuluak, telebista-programak, etab.
- Ebaluazio-irizpideak berrikustea, adierazle adostuak txertatzeko ebaluazio- eta zuzenketa-jardueretan.
- Arlo eta irakasgai guztietako irakasleekin planifikatzea gaitasun honi buruzko lan-proiektuak.
- Batera berrikustea eta planifikatzea askotariko ebaluazio-tresnen erabilera.
- Ikastetxeko liburutegiak eta departamentuetako liburutegiek gai horiei buruz

dituzten funtsak berrikustea eta eguneratzea.

- Mota eta zailtasun ugariak jasotzea proiektu orokorretan, ikasle guztiek egin ditzaten, haien gaitasunak, interesak, hizkuntzak eta gainerako ezaugarriak edozein izanda ere.

■ Eskola-komunitateko eremua**■ Ekintza:**

- Ikastetxeko eragile guztiek matematika-gaitasunaren garrantziari buruzko hausnarketa bateratua egin dezaten sustatzea.

■ Jarduerak:

- Matematika-gaitasuna lantzeko jarduerak izango dituen berriazko txoko bat prestatzea ikastetxeko web-orrian.
- Eskola-komunitateko lehiaketak egitea, matematika-gaitasuna indartzeko xedez.
- Familiak inplikatzeko ikastetxeko ikasleen matematika-gaitasuna hobetzeko prozesuan.

■ Lanbide- garapeneko eremua

■ *Ekintza:*

- Prestakuntza ematea irakasleei matematika-jakintza eta matematika-gaitasunaren lanketa inplementatu dezaten hezkuntza- eta gizarte-testuinguruetan.

■ *Jarduerak:*

- Batera hausnartzea gaitasunaren dimentsioek duten garrantziari buruz.
- Matematika-gaitasunaren alderdi nagusiei buruzko hausnarketa bateratua egitea, gaitasun horren garapena hobetzeko ikasgelan.
- Matematika-gaitasunaren elementu giltzarriei buruzko oinarrizko erreferentziak hautatu eta laburbiltzea.

■ *Ekintza:*

- Ikastetxeko matematika-irakasleei prestakuntza emateko plan bat prestatu eta betetzea.

■ *Jarduerak:*

- Mintegi bat egitea urtero, matematika-gaitasunari buruzko hausnarketa didaktikoa egiteko eta gaitasun horri ematen zaion ikuspegia berrikusteko.
- Hausnarketa didaktikoko mintegi bat egitea urtero, jarduera praktikoen modalitate anitzak jasotzeko programazioan.
- Matematika-ikerketarako erabiltzen diren testuen oinarrizko ezaugarriei buruzko hausnarketa bateratua egitea.

The background features several large, stylized outlines of leaves in white, set against a light green background. The leaves are arranged in a way that they appear to be overlapping and growing from a common base at the bottom. The outlines are simple and clean, capturing the general shape and vein structure of the leaves.

ZIENTZIA-, TEKNOLOGIA- ETA OSASUN-KULTURARAKO GAITASUNA

■ **Curriculum eta metodologia garatzeko eremua**

■ Dimentsioa: **Jakintza zientifikoaren ulermena**

■ **Ekintza:**

- **Arlo eta irakasgai guztietan indartzea ikasleen pentsamendu zientifiko eta teknikoa, haiei gidaritza emanez alderdi konkretuetatik abstraktueterako bidean eta landutako esperientziei buruzko gogoeta egitea sustatuz.**

■ **Jarduerak:**

- Gidatutako eztabaidak egitea ikasgelan, bai natura-fenomenoak lehen aldiz aztertzean, bai haien gainean denbora batez lan egin ondorenean.
- Elkarrizketak, azalpenak eta antzeko jardueretarako bide ematen duen elkarlana sustatzea ikasgelako lanetan.
- Lan-proiektuetako faseak landu eta barneratzeko jarduerak baliatzea ikasgelan.
- Jarduerak egitea ikasgelan izango diren emaitzak iragarri eta horiei buruzko hausnarketak egiteko; betiere, jakintza zientifikoa baliatuz lan hori egiteko.
- Berariaz lantzea testu zientifikoen ulermena lan-proiektuen baitan.

■ **Ekintza:**

- **Askotariko ariketak egin eta baliabide didaktiko anitzak erabil daitezten sustatzea ikasgelan.**

■ **Jarduerak:**

- Zientzia-, teknologia- eta osasun-jakintzarekin lotutako jarduerak egitea ikastetxetik kanpo (zientzia-museoak, planetarioak, interpretazio-zentroak, errendimendu handiko zentroak eta antzekoak bisitatzera joatea).
- Askotariko jarduerak egitea landutako gaietan: lan praktikoak, webquest, kasuen azterketa, simulazio-jokoak, etab.
- Askotariko baliabide didaktikoak erabiltzea landutako gai bakoitzean: IKTak, filmak, prentsa-artikuluak, telebista-programak, etab.

- Dimentsioa: **Natura-errealitatean azalpena**

■ **Ekintza:**

- **Metodologia parte-hartzaileak lantzea, ikasleek beren iritzia eman eta galderak proposatzeko aukera izan dezaten, eta galdera horiei azterketa sistematikoko eta ikerketako jardueren bidez erantzuteko aukera izan dadin.**

■ **Jarduerak:**

- Ingurunean eta gizartean ageri diren egoera adierazgarriak proposatzea modu sistematikoan, haiek ikuspuntu anitzetatik aztertzeke.
- Ikasitakoa ahoz eta idatziz komunikatzeko jarduerak proposatu eta egitea.
- Gaitasunari dagozkion berezko ezagutzak baliatzea arlo eta irakasgaitako egoerak azaltzeko.
- Berariazko jarduerak egitea ikasleek eskemak egin eta konklusio edo ondorioak atera ditzaten.
- Talde-lanak egitea gure ingurune fisiko edo naturaleko arazoetarako erantzunak bilatzeko, azalpenen, elkarrizketen, eztabaiden eta bestelako tresnen bitartez.

■ **Ekintza:**

- **Ohikotasunez erabiltzea errealitatea interpretatzeko erabiltzea eta gaitasun honen berezko jakintzak, bai natura-fenomenoak azaltzeko, bai fenomeno horien ondorioak iragartzeko.**

■ **Jarduerak:**

- Errealitatea interpretatzeko ereduen erabiltzea eskatzen duten jarduerak egitea, eta arreta bereziz nabarmentzea horien behin-behinekotasuna (argiaren eta soinuaren izaera, materiaren egitura, etab.).
- Modu sistematikoan eta ikuspuntu anitzetatik aztertzea natura-errealitateko egoera adierazgarriak; hau da, espazioaren, orografiaren, ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspegitik, besteak beste.
- Jakintza zientifikoak eta prozesu teknologikoak baliatzea arlo eta irakasgai bakoitzeko egoerak azaltzeko.

- Dimentsioa: **Ikerketa zientifikoaren ezaugarri nagusiak ezagutzea**

■ **Ekintza:**

- **Metodologia-ildo komunak erabiltzea, metodo zientifikoa baliatzeko arlo edo irakasgai guztietan.**

■ **Jarduerak:**

- Gidoi-moduko eskemak egitea eta erabiltzea jarduera praktiko guztietan.
- Problema ebazteko jarduerak proposatzea, eta, horietan arrazoitze zientifikoari dagozkion trebetasunak erabiltzea.

- Esperientzia errazak prestatu eta egitea lanerako gai guztietan, ikerketa zientifikoaren funtsezko alderdiak lantzeko.
- Eskola-inguruneari buruzko dokumentazio-ikerketa eta esperimentazio-jarduera xumeak jasotzea programazioan.
- Metodo zientifikoarekiko jarrera baikorrak sustatuko dituzten ikaskuntza-metodoak erabiltzea.
- Proiektu orokorrean problemak, ikerketak, jarduerak praktikoak eta antzeko elementuak sartzeko plangintzak egitea.
- Egindako jarduerak praktikoak eta ikerketak baloratzeko irizpideak adostea.

■ **Ekintza:**

- **Ikerketa zientifikoaren funtsezko alderdiak lantzeko lan-jarduerak indartzea.**

■ **Jarduerak:**

- Ikerketa zientifikoko funtsezko alderdiak jorratuko dituzten jarduerak proposatzea lanerako gai anitzetan.
- Jarduerak prestatu eta egitea ikasgelan, ikasleek uler dezaten ikerketa zientifikoaren etengabe garatzen ari den prozesua dela.
- Ikerketa zientifikoaren garrantzia azalerratu duten jarduerak jasotzea arlo eta irakasgai guztien programazioan.

- Dimentsioa: **Jakintza zientifikoak erabiltzea erabakiak hartzeko**

■ **Ekintza:**

- **Arlo eta irakasgai guztietan sustatzea gizarteko garapen teknologikoak aztertzeko eta zientziak egindako ekarpenen balorazio kritikoa egiteko aukera ematen duten jarduerak.**

■ **Jarduerak:**

- Arlo eta irakasgai guztietan jasotzea zientziaren, teknologiaren, gizartearen eta ingurumenaren arteko elkarrekintzen azterketa.
- Ingurumen-arazo handietan eta horien kausak eta ondorioak zehazteko bidea ematen duten jarduerak proposatzea.
- Ingurumenarekiko elkarrekintza solidarioak eta arrazoizkoak izateko jarrerak eta balioak lantzeko jarduerak proposatzea.
- Arrazoizko kontsumo arduratsuari buruzko hausnarketa sustatzea.
- Dietaren, garbitasunaren eta bizi-ohituren garrantzia indartuko duten jarduerak jasotzea, eta osasunaren zaintzarekin, gaixotasunen prebentzioarekin eta norberaren ongizatearekin lotzea jarduerak horiek.
- Ikasleek azalpenezko testuei buruz duten jakintza baliatzea eztabaidak antolatuz, eta eztabaida horietan zientzien eta horien garapen teknologikoari buruzko alderdiak eztabaidatzea, gatazka etikoak planteatzen dituzten neurrian. Eztabaida horietan, ahalegina egingo da bazterrean uzteko aurreiritzi oro.
- Natura-errealitateari buruzko arrazoibideak landu eta horiekiko jarrerak finkatzeko aukera ematen duten jarduerak egitea.

■ Antolamenduaren eta funtzionamenduaren eremua

■ *Ekintza:*

- Espazioa eta denbora antolatzeko moduak hobetzea, jakintza zientifikoa ulertzeko bidean aurrera egiteko, natura-errealitatea azaltzeko ahalmena handitzeko, ikerketa zientifikoaren elementu nagusiak egokitasunez erabiltzeko, eta erabakiak hartzen ikasteko.

■ *Jarduerak:*

- Ikastetxeko espazioak (laborategia, liburutegia, jolastokia, etab.) erabiltzeko ordutegiak adostea.
- Taldekatzeak eta ordutegi malguak baliatzea lan jakin batzuk egiteko.

■ *Ekintza:*

- Askotariko ariketak egiteko eta baliabide didaktiko anitzak erabiltzeko plangintzak egitea.

■ *Jarduerak:*

- Ikastetxetik kanpoko jarduerak programatzea arlo eta irakasgai guztien artean, interesgarriak diren guneetara joateko: museoak, enpresak, planetarioak, ibilbideak, ingurumen-hezkuntzako zentroak, udal-zerbitzuak edo beste batzuk (araztegiak, hondakinen tratamenduko zentroak, garraio publikoen sareak, etab.). Ikasle guztiek parte hartzeko aukera eman behar dute jarduera horiek.
- Aurrez ezarritako protokolo bati jarraituz antolatzea mendira, inguruko txokoetara edo beste leku batzuetara joateko irteerak, eta irteera horiek proposatutako helburuak betetzeko xedeari jarraitzea.
- Askotariko jarduerak planifikatzea landutako gai bakoitzean: lan praktikoak, webquest, kasuen azterketa, simulazio-jokoak, etab.
- Askotariko bitarteko didaktikoak planifikatzea: filmak, prentsa artikulak, telebista-programak...
- Ebaluaziorako bitartekoak eta irizpideak berrikustea, adierazle adostuak txertatzeko ebaluazio-jardueretan.
- Aurrez finkatutako irizpideen arabera biltzea eta antolatzea gizakien begiek ikusi ezin dituzten prozesuak erakusten dituzten argazkiak, bideoak, simulazioak, etab.
- Arlo eta irakasgai guztietako irakasleekin planifikatzea gaitasun honi buruzko lan-proiektuak.
- Batera berrikustea eta planifikatzea askotariko ebaluazio-tresnen erabilera.
- Ikastetxeko liburutegiak eta departamentuetako liburutegiek gai horiei buruz dituzten funtsak berrikustea eta eguneratzea.
- Proiektu orokor guztietan jasotzea mota eta zailtasun ugariko jarduerak, ikasle guztiek parte har dezaten horietan, haien gaitasunak, interesak, hizkuntzak edo bestelako ezaugarriak edozein direla ere.

■ **Ekintza:**

- Metodologia-ildo komunak ezartzea, ikastetxeko jarduerak aukera eman dezaten jakintza zientifikoa ulertzeko bidean aurrera egiteko, natura-errealitatea azaltzeko ahalmena handitzeko, ikerketa zientifikoaren elementu nagusiak egokitasunez erabiltzeko, eta erabakiak hartzen ikasteko.

■ **Jarduerak:**

- Egiten diren jardueren balorazioa homogeneizatzeko irizpideak ezartzea.
- Metodologia-ildo komunak erabaki eta ezartzea gaitasun honen dimentsioak garatzeko jarduerak egiteko, eta berariaz nabarmentzea ikerketa zientifikoarekin lotutako jarduerak.
- Lan konpartitu baten bidez, gidoi-moduko eskema komun bat egitea, jarduera praktikoa guztietan erabiltzeko.

■ Eskola-komunitateko eremua

■ *Ekintza:*

- Hezkuntza-komunitate osoak gaitasun hau lantzeko jardueretan parte har dezan sustatzea.

■ *Jarduerak:*

- Zientzia-, teknologia- eta osasun-gaiak jorratzen dituzten erakundeen eta ikastetxearen arteko harremanak sustatzea.
- Gaitasun honekin lotutako ekitaldi eta ekintzetan parte hartzeko bultzada ematea klaustroari.
- Familiei jakinaraztea zer jarduera dauden gure inguruan gaitasun honekin lotutako jakintzak lantzen dituztenak.
- Familiak ikastetxean egiten diren zientzia-jakintzarekin lotutako sentsibilizazio-jarduerak egiten eta kudeatzen parte har dezaten erraztea.
- Hezkuntza-komunitatea inguruko ikerketa txikietan parte har dezala sustatzea (ikastetxeko diagnostiko energetikoa, ikastetxeko kutsadura akustikoaren azterketa, garraiobideek sortutako kutsaduraren azterketa, etab.).
- Giza jarduerak natura-ingurunean duten inpaktuari buruzko informazioa eskuratzea eta ingurumenaren zaintzaren aldeko ekintzetan, iraunkortasunaren aldekoetan eta bestelakoetan parte hartzea.
- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna lantzeko jarduerak izango dituen berriazko txoko bat prestatzea ikastetxeko web-orrian.

■ **Lanbide- garapeneko eremua**

■ **Ekintza:**

- **Irakasleek prestakuntza jaso dezaten sustatzea, beren irakaskuntza-jardunean hobetzeko gaitasun honen ezagutza, garapena eta didaktika.**

■ **Jarduerak:**

- Ikasgeletan gaitasun hau ezagutu eta lantzeko egiten diren jarduerak aztertzea.
- Gaitasun hau lantzeko alderdi nagusiei buruzko talde-erabakiak hartzea.
- Jarduera-protokolo bat prestatzea bistarazteko zer jakintza komun konpartitzen dituen gaitasun honek arlo eta irakasgai guztiakin.
- Gaitasun honi buruzko oinarritzko erreferentziak biltzea, horiei buruzko lanbide-irakurketa egiteko.
- Ikastetxean gaitasun honi buruz dauden liburutegi-funtsak berrikustea eta eguneratzea.
- Mintegiak egitea lanbide-irakurketa konpartituak lantzeko.
- Metodo berritzaileak ezagutzeko prestakuntza-ekintzetan parte hartzea.

■ **Ekintza:**

- **Ikastetxeko zientzia-irakasleei prestakuntza emateko plan bat prestatu eta betetzea.**

■ **Jarduerak:**

- Mintegi bat egitea urtero, lan praktikoei buruzko hausnarketa didaktikoa egiteko eta horiei ematen zaion ikuspegia berrikusteko.
- Hausnarketa didaktikorako mintegi bat egitea urtero, eta, horien harian, askotariko jarduera praktikoak sartzea programazioan.
- Problema-egoerak ebazteko eta erabakiak hartzeko prozesuan oinarritutako metodologiari buruzko ikastaro / mintegi bat egitea (eztabaida baliabide didaktiko moduan erabiltzea, etab.).
- Zientzia-ikerketarako erabiltzen diren testuen oinarritzko ezaugarriei buruzko hausnarketa konpartitua egitea.